



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako kuadernoa

**2
0
0
9
/
1
0**

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

MATEMATIKAKO GAITASUNA

Zuzenketa eta erregistro jarraibideak

Liburuxka honetan ezarritako zuzenketa irizpideak eginiko proba pilotuaren arabera zehaztu dira, eta zehatzak eta argiak izan nahi dute, zuzentzaile guztiak puntuazio irizpide berberak erabil ditzaten; hau da, zuzentzailea nornahi izanda ere, proba bati ematen zaion puntuazioa berbera izan beharko luke.

Ondoko urratsei jarraituko zaie:

1. Zuzenketa.

Alternatiba bat hautatzea eskatzen duten galderak (A, B, C edo D).



Zuzentzaileak ez du deus berezirik egin behar.

Gainontzeko galderak



Zuzentzaileak, zuzenketa egin eta galdera bakoitzaren ondoan idatziko du dagokion kodea (0, 1, 2...).

2. Kodeak aplikazio informatikoan sartzea. Kodeak (A, B, C, D, 0, 1, 2...) aplikazio informatikoan sartuko dira.

Erantzunik gabeko galderetan ez da koderik sartu behar (utzi zuriz).

Alternatiba bat hautatzea eskatzen den galderetan, ikasleak aukeraren bat baino gehiago adierazi dituenean (eta ezabatu gabe bat baino gehiago utzi dituenean) ez da koderik sartu behar.

Ikasleek eginiko probak ikastetxean gordeko dira eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku egonon dira. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egiaztatze azterketak egin ahal izanen ditu, zuzenketa irizpideen baliotasuna egiaztatzeko eta irizpide horiei modu homogeneoan jarraitu zaien ikusteko.

Jonen aitona gaixorik dago. Bere amak sukar handia duela antzeman du eta taxi bati deitu dio, Iruñeko ospitalera joateko. Ospitaleko lehen solairuan sartu dute eta tratamendupean dago. Jon, orain, bere aitona ikustera joan da.

- 1. Jonen amak termometroa jarri dio aitonari. Begiratu termometroari. Zure ustez, zein da termometroaren luzera?**


- A. 12 mm
- B. 50 mm
- C. 12 cm
- D. 5 dm



- 2. Amak taxia 6:45ean deitu du eta 7:10ean iritsi da. Taxiak, deitu duenetik, zenbat denbora behar izan du iristeko?**

- A. 15 minutu
- B. 25 minutu
- C. 30 minutu
- D. 5 minutu

- 3. Aitonak, ohetxoan etzanda, sabaia laukiz osatua dagoela ikusi du (ikus marrazkia). Sabaian zenbat lauki dauden jakiteko, zein izango litzateke metodorik azkarrena?**



Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	Metodo bat adierazi du, adibidez: - Egin lerroak bider zatiak - Egin 6 X 8 - 6 X 8

4. Sendagileak 18 pastilla dituen botika eman dio. Jarraian, gosarian pastilla bat hartu behar duela esan dio, beste bat bazkarian eta beste bat afarian; eta horrela pastilla guztiak bukatu arte. Aitonak lehen pastilla ostegunean hartu du, bazkariarekin batera. Sendagilearen jarraibideak betetzen baditu, noiz hartuko du azken pastilla?

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
------------	-----------	------------	----------	----------	-----------	---------

- A. Asteartean, afarian
B. Asteazkenean, gosarian
C. Asteazkenean, afarian
D. Ostegunean, gosarian
5. Sendagileak eztulerako xarabe bat ere eman dio. Egunean, xarabe ontziaren laurden bat hartu behar du. Sendagilearen jarraibideak zuzen betetzen baditu, zenbat egunetan hartuko du xarabea?

- A. Bi egun eta erdian.
B. Hiru egun eta laurdenean.
C. Lau egunetan.
D. Aste batean.




6. Jon aitonari bisitan joan zaio, eta lehen solairuan dago. Erizainak esan dio solairuan 26 logela daudela, gela bakoitzean bi ohe daudela eta 5 ohe bete gabe daudela. Zenbat ohe daude beterik lehen solairuan?
- A. 21
B. 42

- C. 47
- D. 52

7. Aitona dagoen ospitaleko logelak hiru zifra ditu. Logelaren zenbakia zein den jakiteko, ondorengo ohar hauek hartu behar dituzu kontuan:

- Hiru zifren biderkadura 2 da.
- Hamarrekoen zifra bikoitia da.

Idatzi planteamendua edo egiten dituzun eragitekak.



Planteamendua / Arrazoibidea:

$$A \cdot B \cdot C = 2$$

1. Ezin da 0 zifrarik izan. Hiru zifrak 1 baino handiagoak edo berdinak izanen dira.
2. Erdiko zifra (hamarrekoa) bikoitia da (2, 4, 6, 8...). Zifra hori 2 besterik ezin da izan. B da 2.
3. $A \cdot 2 \cdot C = 2$ kontuan izanik, A eta C zifrak 1 izan behar dute.

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Eraitza zuzena ematen du (121), baina planteamendurik ez. Ez du planteamendua adierazi.
2	2	Eraitza zuzena ematen du (121), eta planteamendua ere adierazi du. Planteamendua laburra izan daiteke, egindako eragiketak adieraztearekin aski delarik. Edozein kasutan, garbi ikusten da landu duela eta eraitza ondorioztatu duela. Koaderno honetan adierazitako planteamendua adibide bat da.



martasanchez1988.

Leirek ikasten duen ikastetxean neska eta mutil asko daude, eta ikastalde bat dago maila bakoitzean, Haur Hezkuntzako 1. kurtsoetik hasita Lehen Hezkuntzako 6. kurtsoeraino, ondoko taulan ikus dezakezun bezala.


Maila	Ikasle kopurua
<i>Haur Hezkuntzako 1. maila</i>	-
<i>Haur Hezkuntzako 2. maila</i>	-
<i>Haur Hezkuntzako 3. maila</i>	-
<i>Lehen Hezkuntzako 1. maila</i>	21
<i>Lehen Hezkuntzako 2. maila</i>	15
<i>Lehen Hezkuntzako 3. maila</i>	20
<i>Lehen Hezkuntzako 4. maila</i>	22
<i>Lehen Hezkuntzako 5. maila</i>	16
<i>Lehen Hezkuntzako 6. maila</i>	23

Leire oso pozik dago. Asko gustatzen zaizkio bere ikaskideekin egiten dituen kultur irtenaldiak. Aste honetan, hain zuzen, batzuk museora joango dira, beste batzuk planetariora eta txikienak ikastetxean geratuko dira.

Ikastetxeak jantoki ederra du, geratu nahi duten ikasleentzat.


Eta fotokopiagailu berria erosi dute klaseko lanak eta gurasoentzako eskutitzak egiteko. Baina aurreztu behar dute ordaindu ahal izateko eta horretarako kontuak egin behar dituzte...

8. Osatu grafikoa, aurreko laukiko datuak kontuan hartuz.



Zuzentze irizpideak		
Kodea	Kodea	Kodea
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa. Bi okeer edo gehiago egiten ditu.
1	1	Zutaberen baten altuerari dagokionez akats bakar bat egiten du. (Ez da kontuan hartuko marrazkiaren kalitatea, baina bai altueran zehaztasuna).
2	2	Azken 4 zutabeak altuerari dagokionez behar bezala marraztu ditu. Honela: - 3. zutabea 20ra iristen da, 4. zutabea 22ra, 5. zutabea 16ra, eta 6. zutabea 23ra (grafikoan 22ren eta 24ren artean). (Ez da kontuan hartuko marrazkiaren kalitatea, baina bai altueran zehaztasuna).

9. Begiratu grafikoa.




Guztira, zenbat ikasle daude Haur Hezkuntzan?

- A. 48
- B. 52
- C. 53
- D. 54

10. Ostiralean, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak Planetariora joango dira eta 5. eta 6. mailakoak, berriz, Museora. Aukeratu egoera honi dagokion galderarik egokiena.

- A. Haur Hezkuntzako zenbat ikasle joan dira txangoan?
- B. Zenbat haur daude Haur Hezkuntzan?
- C. 2. mailako zenbat ikasle gelditu dira jantokian?
- D. Zenbat ikasle geratuko dira ikastetxean egun horretan?

11. Museoan mosaikoak ikusi dituzte eta begiraleak mosaikoak egiteko fitxak eman dizkie. Egin marrazkiaren irudi simetrikoa:



Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Irudi osatua eta zuzena, <u>guztiz</u> .

12. Osatu irakasleak arbelean idatzi duen eragiketa hau:

$$\begin{array}{r}
 \begin{array}{cccc}
 & 6 & 5 & 4 & \boxed{1} \\
 & & \boxed{8} & 1 & 5 \\
 - & & & & \\
 \hline
 \boxed{5} & 7 & \boxed{2} & 6
 \end{array}
 \end{array}$$

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	Lau zifrak behar bezala kokatu ditu.

13. Eskolako 170 ikasletatik $\frac{2}{5}$ jantokian geratu dira. Zenbat dira?

- A. 24 ikasle
B. 34 ikasle
C. 68 ikasle
D. 72 ikasle

14. Ikasturtearen hasieran, ikastetxean 2851 € balio duen fotokopiagailu bat erosi dute. Ekarri dutenean 970 € ordaindu dituzte. Geratzen dena ikasturteko 9 hilabetetan ordainduko dute. Geratzen diren hilabete guztietan kopuru bera ordainduko dute. Zenbat euro ordainduko dute hilabete bakoitzean?

Idatzi planteamendua edo egiten dituzun eragitekak.

Planteamendua


2851 - 970 = 1881. Kopuru hori 9 hilabetetan ordainduko dute.

Hilero ordainduko dutena: $1881:9 = 209 \text{ €}$

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo ez dago planteamendurik.
1	1	Emaitza eman du (209 €), baina planteamendurik gabe edo eragiketen erregistrorik gabe.
2	2	Emaitza eman du (209 €), planteamenduarekin, adieraziz zati 9 egin dela.


15. Leirek gurasoen mezu bat eraman dio irakasleari, gutun-azal batean sarturik. Matematikako saioan irudi geometrikoak lantzen ari direnez, irakasleak gutun-azalaren atzeko aldea erakutsi die eta ondorengo galdera hau egin du: zer irudi geometriko ikusten dira?

- A. Laukizuzen 1, erronbo 1 eta 2 triangelu
B. 2 lauki, triangelu 1 eta pentagono 1
C. Karratu 1, 2 triangelu eta pentagono 1
D. Laukizuzen 1, 3 triangelu eta pentagono 1



16. Leirek kutxa bat eraman du gelara. Bere tutoreak desmuntatu du zein forma duen ikusteko eta 4 aukera marraztu ditu. Ondorengo irudietatik, zein da Leireren kutxari dagokiona?


1. aukera




2. aukera



3. aukera



4. aukera




- A. 1. aukera
- B. 2. aukera
- C. 3. aukera
- D. 4. aukera



Leireren kutxa

Gorkak astean zehar ekintza batzuk egin behar ditu. Gurasoek logelan duen eskema hau egiten lagundu diote. Gurasoak oso pozik daude, eskeman agertzen den guztia betetzen baitu.

EKINTZEN ESKEMA



17. Astean, zertan pasatzen du denbora gutxien, telebista ikusten, parkean jolasten, eskolako lanak egiten ala futbolean jolasten?

- A. Parkean jolasten
- B. Futbolean jolasten
- C. Eskolako lanak egiten
- D. Telebista ikusten

18. Nota onak atera dituenek, asteburu honetan baimendutakoa baino ordubete gehiago utzi diote telebista ikusten. Asteburu honetan, zenbat denbora egon da telebista aurrean?

- A. 45 min
- B. 60 min
- C. 90 min
- D. 150 min

19. Asteartean, arratsaldeko zazpiak eta hogeian eskolako lanak egiten hasi da. Logelan duen eskemari jarraituz, zer ordutan bukatuko du Gorkak?

- A. 19:45ean
- B. 20:05ean
- C. 20:15ean
- D. 20:20ean

20. Behatu Gorkaren ekintzen eskemari. Egin asteko ordutegi bat eta sartu Gorkak eskolatik ateratzen denean egiten dituen bi ekintza hauek: igeriketa eta musika. Adierazi behar duzu ekintza noiz hasten eta bukatzen den.

	ASTEL	ASTEART	ASTEAZK	OSTEG	OSTIR
MUSIKA	18:00etatik 18:20ra		18:00etatik 18:20ra		
IGERIKETA		17:30etik 17:55era		18:00etatik 18:25era	

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa. Erantzunak ez ditu betetzen emandako irizpideak.
1	1	Erantzunak ondoko irizpideak betetzen ditu: a) 3 laukitxo gehiago bete ditu, ez gehiago (osotara 4 laukitxo). b) Laukitxo bat musikarena da eta bi igeriketarenak, asteko edozein hutsunetan. c) Iraupena zuzena da (20 minutu musikan eta 25 minutu igeriketan). Ikusi emandako adibidea.

21. Igandean, lehengusina Laura etorri da. Gurasoek esan diete ekintza bakoitzean (bideojokoetan, ordenagailuan eta telebistan) 30 minutuz jolastu behar direla. Kontuak atera ondoren, zer ondorio aterako du Gorkak?

- A. Bideojokoetan gehiago jolastuko du.
- B. Telebista gehiago ikusiko du.
- C. Denbora gutxiago izango du ordenagailurako.
- D. Ez da ezer aldatzen.

22. Gorkak futbol zelai batean jolasten du. Zelai horren neurriak hauek dira: 60 m luze eta 45 m zabal. Berotzeko, entrenatzaileak futbol zelaiaren perimetroari buelta bat emateko agindu die. Zenbat metro egingo ditu Gorkak?

- A. 105 m
- B. 150 m
- C. 165 m
- D. 210 m



Xabier arrebarekin eta gurasoekin kanpin batera joan da oporrak pasatzera. Kanpinean igerilekua, denda, taberna... daude. Kanpinaren sarreran dagoen kartelean egun bakoitzeko zenbat ordaindu behar den jartzen du:

				
Egun bakoitzeko ordaindu behar da	4 €	3 €	5 €	6 €

23. Begira prezioen kartela. Xabierrek eta bere familiak astebete igaroko dute kanpin denda batean. Autoa kanpinaren kanpoan utziko dute. Zenbat kostako zaio familiari egonaldia?

- A. 105 €
- B. 126 €
- C. 133 €.
- D. 140 €

24. Hainbat gauza erosi dituzte, besteak beste, fruta, esnea, galletak. 50 euroko bi billetekin ordaindu dituzte. Dendariak 20 euroko billete bat, 5 euroko hiru billete eta 2 euroko bi txanpon itzuli dizkie. Zenbat ordaindu dute erosketagatik?

- A. 39 €
- B. 61 €
- C. 71 €
- D. 74 €



25. Zenbat ertz ditu dendan erosi duten gaileta kutxak?

- A. 6 ertz
- B. 8 ertz
- C. 12 ertz
- D. 16 ertz



26. Begira ondoko hiru balantzak. Pentsa ezazu zein izanen den pisu handiena duen fruta-alea eta zein izanen den pisu txikiena duena. Nola ordenatuko zenituzke pisuaren arabera?



- A. Banana > udarea > sagarra
- B. Sagarra > udarea > banana
- C. Banana > sagarra > udarea
- D. Sagarra > banana > udarea

27. Xabier eta bere arreba jolasean ari dira igerilekuan. Zenbat balde txiki beharko dituzte balde handia betetzeko?

- A. 2 balde txiki
- B. 3 balde txiki
- C. 4 balde txiki
- D. 5 balde txiki

